



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

85. INFORMAZIO BULETINA

2014ko Urtarrila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> **Olaberria eta Lanka enpresek mugaz gaindiko ekimen onenen eKop sariak irabazi dituzte**

Euskal Eurohiria Garatzeko Mugaz Gaindiko Agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bihartean Mugaz Gaindiko Merkataritza Ganberak eta Pirinio Atlantikoen Kontseilu Nagusiak banatu dituzte **mugaz gaindiko enpresa-ekimen onenen eKop sariak**. Bi ekimen saritu dituzte aurten:

- Olaberria (Uztaritze) enpresaren, Leartiker teknologia-zentroaren, Irungo Cicautxo enpresaren eta Bidarteko Estia ingeniari-estatuaren arteko mugaz gaindiko elkarlana. Elkarlanaren helburua silikona likidozko piezen moldeak fabrikatzeko filial industrial berri bat garatzea izan da.
- Lanka diseinu-enpresaren (Bidart), MITO komunikazio-agentziaren eta Jean Louis Iratzoki diseinatzailearen arteko mugaz gaindiko lankidetzaproiektua. Helburua Eurohiriko enpresei haien markak eraldatzen eta merkatuan posizionatzen laguntzea izan da.

Sariak banatzeko ekitaldiaren aurretik "De la colaboración transfronteriza al nacimiento de una verdadera economía transfronteriza" (Mugaz gaindiko lankidetzatik mugaz gaindiko benetako ekonomia sortzera) hitzaldia izan da eta POCTEFaren 2007-2013 aldiko programazioari buruzko azterlanaren emaitzak aurkeztu dituzte, baita beste muga batzuetan egindako mugaz gaindiko proiektu ekonomikoak ere (Frantzia-Belgika mugan Eurometropolis eta Frantzia-Alemania mugan Rhin Upper Valley).

Informazio gehiago:

<http://www.bihartean.com/secciones/actualidad/noticias/detalle-noticia.php?id=65>



> Batzordeak Egitura Funtsak eta Inbertsio Funtsak kudeatzeko Jokabide Kodea ezarri du

Europako Batzordeak arau sorta bat onartu du solaskideekin Europako Egitura eta Inbertsio Funtsak finantzatzeko proiektuen plangintza, aplikazio, jarraipen eta ebaluazioaren inguruko kontsulta, partaidetza eta elkarrikeria hobetzeko.

Jokabide Kode berri horren bidez, arautu egin nahi dute Batzordearen eta Europako Egitura Funtsen eta Inbertsio Funtsen (EGEF, EGIF, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa, Kohesio Funtsa eta Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsa) kudeaketan parte hartzen duten solaskideen arteko harremana. Solaskide horien artean daude eskualdeko, tokiko, hiriko agintariak eta beste agintari publiko batzuk, sindikatuak, enpresaburuen elkarteak, GKEak eta gizarteratzea, genero-berdintasuna eta bazterkeriarik eza sustatzeaz arduratzen diren erakundeak.

Jokabide Kode berria Batzordearen Erregelamendu bihurtuko da eta juridikoki loteslea izango da. Estatu kideek Elkartzeko Printzipioa aplikatzen dutela bermatzeko helburua eta irizpideak ezartzen ditu eta, beraz, estatu kideei honako betebeharrak hauek ekarriko dizkie:

- Eskualdeko eta tokiko agintariak eta beste agintari publiko batzuk, gizarte eta ekonomia arloko solaskideak eta gizarte zibileko erakundeak ordezkatzeko dituzten hautatzeko prozesuan gardentasuna bermatzea programei jarraipena egiteko batzordeetan eskubide osoko kide diren aldetik;
- Informazio egokia eta behar adina denbora duten solaskideak aurkeztea;
- Solaskideak prozesuaren fase guztietan eraginkortasunez inplikatzeko direla bermatzea; programa guztietan prestaketatik hasi aplikaziora arte, gainbegiratze- eta ebaluatze-lanak barne;
- Solaskideei haien gaitasunak hobetzen laguntzea prozesuan parte hartzeko dituzten gaitasunak eta ahalmenak hobetze aldera.
- Elkarrengandik ikasteko eta jardunbide egokiak eta ikuspegi berritzaileak trukatzeko plataformak sortzea.

Jokabide Kodeak ezartzen ditu estatu kideek aplikatu beharreko printzipioak, baina tarte handia uzten die programazioaren aldi bakoitzean solaskideen partaidetza-praktiken modalitateak zehatz antola ditzaten.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/JOHtml.do?uri=OJ:L:2013:347:SOM:FR:HTML>



> POCTEFA 2007-2013ren hirugarren deialdiak 38 proiektu hautagai jaso ditu, hauetatik 18 Euskadik aurkeztutakoak

POCTEFA Espainia-Frantzia-Andorra programa operatiboak 38 proiektu jaso ditu 2013ko hirugarren eta azken deialdian.

Eskualdeka, Akitaniak hartu du parte proiektu gehienetan (24) eta atzetik ditu Euskadi (18), Aragoi (17) eta Midi-Pyrenees (16). Kataluniak eta Nafarroak 9 proiektutan hartu dute parte eta Languedoc-Roussillon eskualdeak 3 proiektutan.

Deialdi honetan jasotako ekimenen artean daude mugaz gaindiko lankidetzarako proiektuak, turismoa, I+G, azpiegitura, garraioa, hirigintza, prestakuntza, arriskuen prebentzioa, musika eta beste hainbat arlotan.

Hirugarren deialdi honetan, Programa Operatiboaren lehenetsuneko ardatz guztiei lotutako proposamen guztiak onartu ditugu: mugaz gaindiko integrazioa indartzea ekonomiari, berrikuntzari eta giza kapitalari lotutako jardueretan; lurraldeei eta haien natura- eta kultura-ondareari balioa ematea, babestea eta iraunkortasunean oinarrituta kudeatzea; eta lurraldea egituratzeko eta garapen iraunkorrerako estrategia bateratuen bidez herrien bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak.

Datozen hilabeteetan egingo da proiektuak hautatzeko prozesua. Programaziorako eta proiektuak hautatzeko batzordeak erabakia 2014ko udaberrian hartzea espero da. Programan parte hartzen duten agintari publikoen ordezkariak osatzen dute Batzordea.

2007-2013 aldian, POCTEFAk, orotara, 224 proiektu jaso ditu eta horietatik 133 programatu dira.

Informazio gehiago:

<http://www.poctefa.eu/noticias/detallenoticia.jsp?id=20ae7925-3a42-4925-97ad-f9035af10121>



KOHESIO-POLITIKA

> INTERREG EUROPEK 2014-2020rako Programa Operatiboaren zirriborroa argitaratu du

Etorkizuneko Lurralde Lankidetzarako Programari lotutako kontsulta publikoetan 2001/42/EC Direktiba betez, INTERREG EUROPE (INTERREG C) programak 2014-2020rako Programa Operatiboaren proposamen-zirriborroa argitaratu du kontsultak egiteko. Programak ingurumenean duen inpaktuari buruzko txostena ere argitaratu dute.

Araudiaren arabera, estatu kideek eta dagokien kudeaketako agintariak 2014ko irailaren 22a dute Lurralde Lankidetzarako Programak aurkezteko azken eguna. Proposatutako Programa Operatiboekin dagokien ex ante ebaluazioa ere aurkeztu beharko dute.

Programa Operatiboaren zirriborroak aurkeztu ondoren, Batzordeak gomendioak egin ahal izango ditu aurkezten direnetik hiru hilabeteko epean eta behin betiko Programa gauzatzeko, gehienez, sei hileko epea izango da aurkezten denetik zenbatzen hasita, betiere, estatu kideak edo kudeaketako agintariak Batzordearen oharrak aintzat hartu ondoren.

Informazio gehiago:

<http://www.interreg4c.eu/public-consultation-workshop/>



> Europako Batzordeak lana bilatzeko EURES sarea hobetu egin nahi du


Europako Batzordeak aurkeztutako azken proposamenaren arabera, Europako herrialdeetan lana bilatzeko EURES sarea indartu egingo da lan-eskaintza gehiago eskaini ahal izateko, lan arloko bat-etortze egokien probabilitatea handitzeko eta enplegatzaileei lanpostu hutsak azkarrago eta eraginkorrago betetzen laguntzeko.

Batzordeak proposatu dituen arau berrien xedea EURES sarearen eraginkortasuna hobetzea da eta, horretarako, kontratazioei gardentasun handiagoa eman eta estatu kideen arteko lankidetzak indartu nahi dute. Zehatz esanda, proposatutako aldaketei esker, EURES sareak EBko lan-eskaintza gehiago eskaini ahal izango ditu webgunean, enplegu-zerbitzu pribatuetatik datozenak barne. Europa osoko lan-eskatzzaileek berehala sartu ahal izango dute eskaintzetara eta erregistratutako enplegatzaileek curriculum-aukera zabaletik abiatuta egin ahal izango dituzte kontratazioak.

Gainera, lan-eskaintzen eta curriculumen arteko bat etortzeak automatikoki identifikatuko ditu eta Batasuneko edozein tokitako lan-eskatzzaileei eta enplegatzaileei oinarrizko informazioa emango die EBeko lan-merkatuari eta EURES sareari buruz.

Informazio gehiago:

<https://ec.europa.eu/eures/>



> Greziak bere gain hartu du ofizialki Europar Batasuneko presidentetza

Urtarrilaren 1etik, Greziak du Europar Batasuneko Kontseiluko Presidentetza. 1981ean Europar Batasunean sartu zenetik, bosgarren aldiz hartu du Greziak Presidentetza.

Greziaren presidentetzaren helburu nagusia, haren programaren arabera, sendotze fiskalaren egutegia orekatzea da Hazkundearen eta Enpleguaren aldeko Itun hobetua eta errealista aplikatuz, horrek inbertsiorako Europako programa anitz bat ekar dezan, kohesio-politikan oinarri hartuta eta enpleguari enfasia emanez.

Greziaren Presidentetzaren lana gidatuko duten ildo nagusiak hauek izango dira:

- Herritarrekiko eta gizartearekiko konpromisoa hobetzea ekonomia suspertzea, enplegua, kohesioa, Batasuneko herritarren mugikortasuna eta Europako segurtasuna sustatuko dituzten politiken eta ekimenen bidez.
- Europar Batasunaren integrazioa sakontzea, batez ere Diru Batasunarena, etengabeko krisiak agerian jarri dituen euroguneko arkitekturaren hasierako gabeziak hobetzeko politikak eta ekintzak sustatuz.
- Europar Batasunaren legezketasuna eta kontrol demokratikoa indartzea.

Informazio gehiago:

<http://gr2014.eu/>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Euskadi, industria-politikan eta espezializazio adimendunaren politikan lider diren Europako eskualdeen taldean

Eusko Jaurlaritzak “Abangoardiarako eskualdeak” taldearen goi mailako bileran parte hartu zuen urtarrilean. Taldea osatzen duten Europako 15 eskualdeetako ordezkariak bildu ziren Europar Kontseiluko presidente Herman Van Rampuy-ri igortzeko gutun-adierazpena sinatzeko. Gutun-adierazpen horren bidez, eskualde horien jarrera Europar Kontseiluak martxoan egingo duen hurrengo bileran txertatzeko eskatu nahi diote.

“Abangoardiarako eskualdeak” taldeak Europako industria-hazkunde berrian eskualdeek parte hartzeko prozesuan eta espezializazio adimenduneari oinarritutako berrikuntza-sisteman urratsak ematea proposatu diote Europar Kontseiluari. Plan estrategikoak eta inbertsio estrategikoak bateratzea eta eskualdeetako klusterrak mundu mailako kluster bihurtzea proposatu dute.

Euskadirekin batera, “Abangoardiarako eskualdeak” taldean, Europako 15 eskualde daude: Baden-Wurttemberg, Flandria, Valonia, Lombardia, Polonia Txikia, Iparraldeko Renania-Westfalia, Eskozia, Eskania, Herbehereetako hego-ekialdea, Tampere, Asturias, Portugal iparraldeko eskualdea, Austria Garaia eta Rhone-Alpeak.

Talde horretako kide diren eskualdeek espezializazio adimendunarekiko konpromisoa dute; ez Europako kohesio-politikaren ex ante baldintza gisa bakarrik, baizik haien industria- eta berrikuntza-politiken printzipio gidari gisa, lehiakortasuna eta hazkundera sustatzeko helburuarekin. “Abangoardiarako eskualdeak” taldeak bizkortu egin nahi du espezializazio adimenduna industriaren eta berrikuntzaren aldeko Europako politiketan txertatzeko prozesua eta erakutsi nahi du eskualdeak eragile nagusi izan daitezkeela politikaren maila guztiak eta hazkundera izateko interesa duten alderdi guztiak mugiarazteko.

Informazio gehiago:

https://www.irekia.euskadi.net/eu/news/17697-euskadi-europako-vanguard-programan-arantza-tapiak-bruselan-sinatutako-hitzarmenaren-bidez-europako-eskualde-industriako-eta-espezializazio-adimenduneko-politikaren-buru-jarriko-dira?criterio_id=795100&track=1



> **Gazteen mugikortasunari buruzko Europako indizeak erakutsi du ahalegin handiagoa egin behar dela atzerriko ikasketak eta prestakuntza sustatzeko**

Europako Batzardeak argitaratu ditu Europako gazteen mugikortasunaren adierazlean kalkuluaren lehen edizioako emaitzak. Adierazle sintetiko bat da, Europar Batasuneko herrialdeek atzerriko ikasketak eta prestakuntza sustatzeko egiten dituzten ahaleginak neurtzeko egina.

Zehazki, bost arlo espezifikotan egindako aurrerapena hartu du adierazleak kontuan: mugikortasun-aukerei buruzko informazioa eta orientazioa; atzerrira joateko aukera/erraztasunak; eskaintzen diren beka edo laguntza ekonomikoak; hizkuntzak jakitea; beste herrialde batzuetan egindako ikasketak aitortzea eta egoera zailean dauden inguruetako ikasleei ematen zaien laguntza. Aztertutako bost eremu horiek gazteek beste herrialde batzuetan ikasteko edo prestakuntza jasotzeko duten motibazioari eta gaitasunari eragiten diote.

Emaitzei begira jarrita, adierazleak erakutsi du estatu kideek "ahalegin handiagoa" egin behar dutela beste herrialde batzuetan ikastea eta prestakuntza jasotzea sustatzeko. Hala ere, adierazlearen emaitzen arabera eta herrialdeen rankingari erreparatuta, Alemanian, Belgikan, Espainian, Frantzia eta Italian dituzte atzerrian ikasteko edo prestakuntza jasotzeko aukerak sustatzeko eta horri buruzko aholkuak emateko sistema publiko onenak.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/rapid/press-release_IP-14-9_es.htm



> Sei hiri lehiatuko dira Berrikuntzaren Europako Hiriburua izateko

Europako Batzordeak izendatutako aditu-taldeak Berrikuntzaren Europako Hiriburuaren (*"iCapital"* ere deitzen diote) lehen saria eskuratzeko sei hiriak hautatzea erabaki du.

"iCapital" sariaren xedea hiriak animatzea da, berrikuntza susta dezaten eta etorkizunerako ideia onenak trukatu ahal izango dituen hirien sarea sor dezaten. 500.000 euroko saria eskuratuko du "berrikuntzaren ekosistema" onena sortzen ari den hiriak. Horretarako, herritarrei eskura jarri zaizkie organismo publikoak, mundu akademikoa eta enpresak, betiere, berrikuntza-gaietan ahalegin handiagoa egiten laguntzeko.

Egindako ekimenak eta datozen urteetan berrikuntzarako gaitasuna indartzeko dituzten ideiak kontuan hartuta ebaluatu dituzte hautagai diren hiriak .

Hemen azalduko dugu hiri finalistak zein diren eta izan dituzten lorpen nagusiak:

- **Bartzelona**, hiria hiritarrei gerturatzeko teknologia berriak erabiltzen hasteagatik;
- **Espoo** (Finlandia), zientzia, enpresa eta sormena bateratzen dituzten elkarte estrategikoak sortzeagatik;
- **Grenoble** (Frantzia), zientzia eta teknologia arloko aurrerapen handietan ikerketaren, hezkuntzaren eta industriaren arteko sinergien bidez egindako inbertsioengatik;
- **Groningen** (Herbehereak), erabiltzaileari lehentasuna ematen dion energia adimenduneko ekosistema garatzeko kontzeptu, tresna eta prozedura berriak erabiltzeagatik;
- **Málaga**, sormenaren arloko pertsonak eta industriek elkarrekin lan eginda eta hazkundera sustatuta hiria eraberritzeko sortu duten eredu berriagatik;
- **Paris**, udal-ondarea mota guztietako enpresek sustatutako irtenbide esperimantal berritzaileak aplikatzeko zabaltzeagatik.

2014ko Berrikuntzaren Konbentzioan iragarriko dute zein den hiri irabazlea. Europa mailako berrikuntzari lotutako ekitaldia izaten da eta Bruselan izango da martxoaren 10ean eta 11n.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/research/innovation-union/index_en.cfm?section=icapital&pg=home



> 2015eko Europako Eskualde Ekintzailearen saria eskuratzeko hautagaitzak aurkezteko epea zabaldu dute

Eskualdeen Batzordeak Europako Eskualde Ekintzailearen sariketaren edizio berria aurkeztu du. Etorkizun-
senik handiena duten Europako hiri eta eskualdeei aitormena egiten die sariketak.

Ezohiko enpresa-ikuspegia praktikan jartzen duten eskualdeak saritzen dira; Europa 2020 Estrategiaren
Small Business Act gauzatzen laguntzen duten eta funts publikoak ondoen erabiltzen dituzten ekintza zehatz
eta neurgarriak egiten dituztenak saritzen dira, edozein dela ere haien neurria, aberastasuna edo gaitasuna.

Ekimenaren helburu nagusia Europa osoan eskualde dinamikoak, ekologikoak eta ekintzaileak sustatzea da.

Eskaerak aurkezteko epea 2014ko martxoaren 31n amaituko da.

Informazio gehiago:

www.cor.europa.eu/ee



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Eskualdeak eta berrikuntza: Mugaz Gaindiko Lankidetzaren (ELGA)

Txosten honek berrikuntzaren arloko mugaz gaindiko lankidetzaren emaitzak jasotzen ditu honako herrialde hauek hartzen dituzten mugaz alde bateko eta besteko tokiei buruz egindako azterlanetatik abiatuta: Finlandia, Suedia, Norvegia, Estonia, Danimarka, Alemania, Herbehereak, Belgika, Erresuma Batua eta Irlanda.

Azterketaren ondorio gisa, txostenak orientazioa ematen du hainbat gairi buruz: berrikuntzak sustatutako garapen ekonomikoa lortzeko mugaz bestaldeko auzotarrekin elkarlanean aritzeko egokiak diren uneak, mugaz gaindiko lankidetzari hori antolatzeke erabil daitezkeen gobernantza-ikuspegiak edo berrikuntzarako mugaz gaindiko lankidetzari laguntzeko tresna politikoak.

Informazio gehiago:

<http://www.oecd-ilibrary.org/content/book/9789264205307-en>

> Europako Ongizate-Estatua: Euskadiren erronkak XXI. mendean (Eurobask)

Argitalpen honek biltzen ditu 2013ko apirilean egindako lan-saioko hitzaldiak. Eusko Legebiltzarrean antolatu zituzten saioak EUROBASK, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluarekin batera. "Europako ongizate-estatua: Euskadiren erronkak XXI. mendean" izan zen jardunaldiaren izenburua eta adituen hitzaldiak entzun ahal izan ziren.

EUROBASKek, urtero, Europaren mezua euskal gizarte osoan hedatzeko eta Euskadi Europaren eztabaidan tokirik aktiboenetako bat bihurtzeko antolatzen dituen ekimenetako bat da hori.

Informazio gehiago:

http://eurobask.org/ficherosFTP/Publicaciones/ONGIZATEBIENESTAR_2013.pdf



> **Mugaz Gaindiko Lankidetzari buruzko esparru juridikoa. Mugaz gaindiko proiektuentzako tresna juridikoak (MOT)**

Mugaz gaindiko Misio Operatiboak (MOT) gida bat argitaratu du mugaz gaindiko lankidetzarako marko juridikoari buruz, eta, zehazki, mugaz gaindiko proiektuak kudeatzeko lege-tresnei buruz. Agiri horren helburua lankidetzan aritzen diren profesionalen haien beharretara ondoen egokitzen den forma juridikoa aukeratzeko laguntzea da.

Dokumentuak hainbat fitxa ditu tresna bakoitzerako: definizioa, oinarri juridikoa eta erabilera-eremuak eta abantaila eta muga nagusiak. Tresna bakoitzari lotuta, Frantziako mugetan sortutako egituren bi adibide ere baditu. Gidak tresna juridiko bat hautatzearen fase nagusiak ere azaltzen ditu; baita tresnen laburpena egiten duen taula bat ere.

Informazio gehiago:

http://www.espaces-transfrontaliers.org/fileadmin/user_upload/documents/Documents_MOT/Etudes_Publications_MOT/Marco_juridico_de_la_cooperacion_transfronteriza_ES.pdf